BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/11/05

# Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onetsi kontrol neurri berririk jarterik Foru Aldundiko goi karguen ibilgailu ofizialen flotan

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen bederatzi botoak nahikoak izan dira Talde Popularrak eta Talde Mistoak, Aldundiko goi karguen zerbitzurako erabilten diran ibilgailu ofizialen flotan kontrol neurri berriak jarteagaz erlazionauta aurkeztu dituen neurri biak baztertzeko.

Alde batetik, Talde Popularraren Arauz Besteko Proposamenak eskaria egiten eutsan Aldundiari, ibilgailu ofizialen erabileraren ganeko protokoloa ezarteko, ibilgailu horreek "behar instituzionalagaz zuzenean erlazionautako helburuetarako baino ez erabilteko". Ekimen horren barruan, protokoloa beteko dala bermatzen dauen mobikortasunaren ganeko sistema adimentsua instaletea be aurreikusten zan.

Javier Ruiz bozeroale popularrak, ibilgailu horreek egiten daben "kilometro kopuru handia" salatu dau. Ruizen berbetan, diputatu bakotxak 33.000 kilometro egiten ditu batez beste urtean. Horrez gain, "helburu partikularretarako be erabilten dirala" salatu dau. Holan, bozeroale popularrak, "lan jardunaldiak goi karguaren beharren eta eskariaren araberakoak dirala" kritikau dau.

Talde Mistoak aurkeztutako proposamenak, barriz, Aldundiko goi karguentzako ibilgailu ofizialen parkean flota horreek kudeetako sistemea instaletea eskatzen eutsan Foru Aldundiari, ibilgailuen floten hardwarearen eta softwarearen bitartez, holan, "modu errezean, ibilgailu bakotxaren erabileraren ganeko datuak ezagutzeko, hori optimizetako eta baliabide publikoen erabilerea hobetzeko".

Ibilgailu horreen erabilerea errazionalizetako eta kudeetako helburuagaz, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, "horren ganean behar egiteko aukerea emongo deuskuen etorkizuneko datu iturrietara joatea" gomendau dau.

Halanda be, ekimen biak onetsi barik geratu dira, Foru Gobernua eusten daben taldeen kontrako eretxia dala eta; EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak, orain hilebete batzuk azaldutakoagaz bat etorrita, "errazionalizazino ariketa hori daborduko egin dala" gogoratuazo dabe. Aurretik esan eben moduan, parke mobikorrak %33ko murrizketea izan dau, aurreko legealdiagaz alderatuta.

Ekain Rico bozeroale sozialistak, Talde Popularrak ibilgailuen erabilera pertsonalaren ganean esandakoa guzurtau dau: "Zu eta ni, ez gara inoiz ekitaldietara joan Batzarretako gure taldeen ordezkari moduan asteburuetan, eta bertan Aldundiko ordezkariakaz alkartu?". "Politikaren ganean harriak botateko joerea jarraitzen daben kontu demagogikoak baztertzeko eskatzen deutsut", esan dau.

Ildo berean, Irene Edesa ordezkari jeltzaleak azpimarratu dauenez, “behar egiteko beste tresna bat da” eta “goi kargu guztiek ez daukie euren ibilgailua”. Edesak ibilgailuen erabilera “arduratsua eta zaindua” defendidu dau; erabilera “beharrezkoa”, Bizkaiko herritar guztiei “arreta egokia” emoteko.

Oposizinoko ganerako taldeei jagokenez, Podemos eta EH Bildu taldeak bat etorri dira zelanbaiteko kontrol neurria ezarri beharra azpimarratzeko orduan.

Neskutz Rodriguez Podemos taldeko bozeroaleak, “pribilegioak saihesteko” gida bat sortzea defendidu dau, “ibilgailu ofizialen erabileran gardentasuna eta informazinoa egon daiten”. Meritxel Elgezabal EH Bilduko batzordekideak, bere aldetik, beste batzuen artean kudeaketaren ganeko erespideak eta gidarien lan baldintzak barru hartuko dituan protokoloa ezartea eskatu dau. EH Bildutik beharrezkoa ikusten dabe, baita be, protokoloaren barruan beharginen familiako eta laneko bizitzaren arteko kontziliazinoa jasotea.

Bozketan, Talde Popularraren proposamenak Talde Popularraren, Talde Mistoaren eta Podemos Bizkaiaren aldeko botoak jaso ditu; Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe; eta EH Bildu abstenidu egin da.

Talde Mistoaren proposamena be ez da onetsi, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu taldeek kontrako botoa emon dabelako. Aldeko botoa emon daben bakarrak Talde Popularra eta Talde Mistoa izan dira. Batzarretako Podemos taldea abstenidu egin da.

HAUTESKUNDE-BARRUTI BAKARRA

Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak ez dau onetsi Talde Mistoaren arauz besteko beste proposamen bat. Ekimen horren bitartez bilatzen zana, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari “Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martiaren 27ko 1/1987 Legean egin daiteken edozein aldaketatan Bizkaiko Lurralde Historikoa hauteskunde-barruti bakarra izatea” eskatzea zan. Proposamena ez da onetsi, aldeko boto bakarra proposamena aurkeztu dauen taldearena izan dalako.

NOTA DE PRENSA

05/11/18

# Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan implantar nuevas medidas de control en la flota de vehículos oficiales de los altos cargos de la Diputación Foral

Los nueve votos de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han sido suficientes para tumbar las dos iniciativas presentadas por el Grupo Popular y Grupo Mixtos relativas a implantar nuevas medidas de control en la floto de vehículos oficiales al servicio de los altos cargos forales.

Por un lado, la proposición no de norma del Grupo Popular instaba a la Diputación a elaborar un protocolo relativo al uso de los vehículos oficiales a fin de que éstos "sean utilizados para fines exclusivamente relacionados con el desempeño de su labor institucional". La iniciativa también prevé la instalación un sistema inteligente de movilidad que garantice el cumplimiento del protocolo.

El portavoz popular, Javier Ruiz, ha denunciado el "abultado kilometraje" que realizan estos vehículos, que en palabras de Ruiz alcanza los 33.000 kilómetros de media al año por diputado y diputada, además del "uso para fines particulares". En este sentido, el portavoz ha criticado que "las jornadas de trabajo van en función de las necesidades y la demanda del alto cargo".

La propuesta presentada por el Grupo Mixto, por su parte, instaba a la Diputación Foral a implantar en el parque de vehículos oficiales para altos cargos forales, un sistema de gestión de flotas que, a través del hardware y software de flotas de vehículos, "permita conocer de forma sencilla los datos de uso de cada vehículo, optimizar el mismo y mejorar el uso de los recursos públicos".

Con el fin de racionalizar y gestionar el uso de estos vehículos, Arturo Aldecoa, portavoz del Grupo Mixto, ha recomendado "recurrir a fuentes de datos futuras que nos permitan trabajar sobre ello".

No obstante sendas iniciativas se han topado con la negativa de los grupos que sustentan el Gobierno foral; tanto el PNV como el PSE-EE, en concordancia con los argumentos expresados hace unos meses, han recordado que "ese ejercicio de racionalización ya se ha realizado". Como ya manifestaron, el parque móvil ha sufrido una reducción del 33% respecto a la anterior legislatura.

El portavoz socialista, Ekain Rico, ha rebatido una de las afirmaciones del Grupo Popular sobre el uso personal de los vehículos: "¿Acaso usted y yo no vamos a actos como representantes de grupos junteros, coincidiendo con representantes de la Diputación, los fines de semana?". "Le pido que abandonemos cuestione demagógicas que van en una tendencia de echar piedras contra la política", ha manifestado.

En la misma línea, la representante nacionalista Irene Edesa ha resaltado que ésta se trata de "una herramienta de trabajo más", y que "no todos los altos cargos disponen de un

vehículo propio”. Edesa ha defendido el uso” responsable y adecuado” de los vehículos; un uso “necesario” para atender “de forma correcta” a toda la ciudadanía de Bizkaia.

Por parte del resto de grupo de la oposición, los grupos junteros Podemos y EH Bildu han coincidido en la necesidad de establecer alguna medida de control.

La portavoz de Podemos, Neskutz Rodriguez, ha defendido la creación de una guía “para evitar los privilegios, para que haya transparencia e información del uso que se hace de los vehículos oficiales”. La apoderada de EH Bildu, Meritxel Elgezabal ha amparado el establecimiento de un protocolo que acoja criterios de gestión, condiciones laborales de los choferes, entre otros. Desde EH Bildu también ven necesario que el protocolo incorpore la conciliación entre la vida familiar y laboral de los trabajadores y trabajadoras.

En la propia votación, la propuesta del Grupo Popular ha contado con los votos favorables de Grupo Popular, Grupo Mixto y Podemos Bizkaia; el voto negativo de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos; y la abstención de EH Bildu.

La propuesta del Grupo Mixto también ha decaído con los votos en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu. Únicamente ha contado con el voto favorable de Grupo Popular y Grupo Mixto. El grupo juntero Podemos ha optado por la abstención.

ÚNICA CIRCUNSCRIPCIÓN

La Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia ha rechazado una segunda proposición no de norma del Grupo Mixto. Un iniciativa para trasladar al Gobierno Vasco y al Parlamento Vasco el criterio de que, “en cualquier modificación futura de la Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales, el Territorio Histórico de Bizkaia debe constar de una única circunscripción”. La propuesta ha decaído al contar solo con el voto favorable del grupo proponente.